

XXXV. BIDEOALDIA

Antzoki Zaharra 19:00

Ekainak 23

Larrotxene kultur etxeak, Donostia Kulturako zentroak, ikus-entzunezko eremuan espezializatutako zentroa den aldetik, ikasturtean zehar egindako lanak Bideoaldian aurkeztuko ditu. **35 urte** dira Larrotxeneko bideo espezializazioa martxan jarri zela Intxaurren auzoko Larrotxene Kultur Etxean eta dagoeneko 500 produkzio baino gehiago ekoiztu dira eta lagundutako koprodukzioak ehunka dira.

Urtero bezala 35. Bideoaldiak **Antzoki Zaharrean** elkartuko gaitu. Aurten ekainaren 23ko arratsaldeko 19:00etan ospatuko da.

2022-2023 ikasturtea berezia izan da Larrotxenen. Ikasturtean zehar, zentroan hobekuntza lanak egin dira eta Larrotxene Bideoren jardura Intxaurrendoko kultur etxera eraman da. Bertako azpiegitura dela eta, ikastaro-kopurua murriztu behar izan da eta Larrotxene Bideoa jardura behin-behineko baldintzetan garatu da.

Aurtengoa beraz, transiziozko ikasturtea izan da, baina hala ere, ikasurte emankorra eta sormenez beterikoa izan da. Irakasleak eta ikasleak beren lanak egiten ahalegindu dira eta aurtengo Bideoaldian, ikasturtean zehar landu diren hainbat generotako produkzioen aukeraketa ikusteko parada izango dugu. Ekitaldiak ordubete inguruko iraupena izango du, eta ikastaroetan egindako lanen, koprodukzioen eta ekoizpen propioen artean, 6 film labur eta amaierako sorpresa bat ikusi ahal izango dira:

Hibernazioa: Andoni de Carlosek emandako "Gidoigintza Hastapena" ikastaroan sortu da. **Ainhoa Mariezkurrenak** zuzendutako 6 minutuko film laburra da, non neska gazte bat bere bikotekidearekin dibertitzen saiatzen da gau batean, baina ezin izango du iraganeko oroitzapenez ihes egin.

Matamoscas: **Pablo Malok** emandako "Dirección de Cine" ikastaroan garatutako komedia laburra. 7 minutuko lana, **Irene Royoren** zuzendaritzapean. "Lapur bat, bitxiak eskuan eta eulia belarrian, etaitsu bat, belarriak irekiak eta eskuan... matamoskasa"

Martes por la Mañana: **Michel Gaztambidek** ematen duen "Guion Avanzado" ikastaroan landutako film laburra da. **Mikel S. Galarzak** zuzendaritzapean 4 minutuetan bi gazteen arteko elkarriketa erretratatzeko du: "Gelako kirolaria enpoloiarekin hitz egitera hurbiltzen bada, apunteak behar dituela esan nahiko du, edo..."

Kosmikoa: "Guion Avanzado" ikastaroan sortutako lana. **Michel Gaztambideren** tutoritzapean egindako gidoia eta **Ane Rotaetxek** zuzendutako 9 minutuko filma. "Susana bere jaioberriarekin erregistro zibilera doa tramite bat egitera. Tramite sinple bat izan beharko lukeena burokrasia bataila bat bihurtzen da, uste gabeko mugetara eramango duena."

Saioa amaitzeko bi koprodukzio aurkeztuko dira:

Determinadas film laburra. **Iulen Aranak** zuzendutako 7 minutuko drama. "Alex eta Maider ustekabeen banatzen dira harreman luze eta polit baten ondoren. Hausturaren arrazoia agerian geratuko da Alex *casting* batera joaten denean bere bizitzako papera lortu nahian. Arteak bere egia kontatzea eta askatasuna lortzea ahalbidetuko dio."

Normas de Higiene. **Amaia San Sebastianek** zuzendutako 17 minutuko film laburra. "Emakume zauritu bat edozer gauza egiteko gai bada, emakume antolatu askok egin dezaketenarentzako ez dago inolako mugarik"

Datorren ikasturtean Larrotxene Bideoeko zerbitzua betiko eraikinera itzuliko da, aro berri bati hasiera emateko. Ekipamendu modernizatuek, material berriek eta instalazio

egokitu eta berrituek betiko jarduera eta ikastaroen kalitatea bermatu ezezik, proiektu berriak abian jartzeko aukera ezinhobea eskainiko dute.